




EUSKADIKO GGKEen  
KOORDINAKUNDEA  
COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI

# txostena 2008





Laguntzailea:



ENPLEGU ETA GIZARTE  
GAIETAKO SAILA  
*Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y  
ASUNTOS SOCIALES  
*Dirección de Cooperación al Desarrollo*



EUSKADIKO GGKEen  
KOORDINAKUNDEA  
COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI

#### Araba

Simone de Beauvoir Elkartetxea  
San Ignacio de Loyola 8 - 3. 1 Bulegoa  
01001 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 280 745 • Faxe: 945 280 745  
araba@ongdeuskadi.org

#### Bizkaia

Plaza Circular 3 - 4. B  
48001 Bilbao  
Tel.: 944 150 300 • Faxe: 944 150 300  
bizkaia@ongdeuskadi.org

#### Gipuzkoa

Pasajes San Pedro Etorbidea 13 atzealde  
20017 Donostia  
Tel.: 943 463 526 • Faxe: 943 463 526  
gipuzkoa@ongdeuskadi.org

[coordinadora@ongdeuskadi.org](mailto:coordinadora@ongdeuskadi.org)

[www.ongdeuskadi.org](http://www.ongdeuskadi.org)

## Aurkibidea

1.	Aurkezpena	2
	20 urte baino gehiago garapena eta eraldaketa sozialaren alde	3
	Barne-mailan indartzea	4
	Gizarte-eraldaketa eta eragin politikoa	4
	GGKEei laguntzea	5
2.	Nortzuk gara?	6
	Misioa	7
	Barne antolaketa	7
3.	Gure ekimenak	
	Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordea	8
	Generoa	10
	Eragin Politikoa	12
	Gizarte-mobilizazioa eta Kanpainak	14
	Komunikazioa	16
	Idazkaritza Teknikoak: Euskadi, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa	18
4.	Koordinakundeko Kideak	22
	Gobernu Batzordea	22
	Lan-taldeak	22
	Erakundeetan partaidetza	23
	Talde Teknikoa	24
	Kideak diren GGKEak	24
	Lankideak	24
5.	Web gune berria	25
6.	Kontu argiak	26







## 20 urte baino gehiago garapena eta eraldaketa sozialaren alde

Datozen orrietan Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundeak atzera begiratu nahi du, 2008an egindako aurrerapenen laburpen bat eskaintzeko.

Dakizuen bezala, 2005ean Plan Estrategikoa garatu genuen eta 2009an plan berri bat garatzeko etapa berri bati ekingo diogu. Denbora honetan, aurrerapenak lortu dira eta Lurraldeko Batzorde bakoitzean Planaren ebaluazio eta jarraipen sistemetara egokitzea lortu da. Antolakuntzako kultura bat sortu dugu baita Planaren Jarraipen talde bat ere, horrela, tresna horrekin erraztasun eta azkartasun handiagoa lortuz. Gauzatutako planifikazio lan guztiari esker, kultura ebaluatibo jarraitu bat sortzen ari gara, eta, gainera, abiatutako ekintzen hobekuntza sustatzen laguntzen digu.

Egitura mailan, lurraldez gaundiko lan taldeek ondo funtziona dezatela lortu da. 2008an ere talde horiek ezinbesteko laguntza izan dira Koordinakundearen eguneroko zereginetan.



## Barne-mailan indartzea

2008an, Koordinakundearen barruan lan handia egin dugu Garapenerako GKEekin (GGKE) erakundeen partaidetzaren jarraipena egiteko eta hobetzeko. Horrela, Idazkaritza Teknikoek lurralde bakoitzeko erakundeekin duten zuzeneko harremana hobetu dute.

Era berean, lan taldeen arteko koordinazioa eta partaidetza sustatu dira, baina, oraindik indartzen jarraitu beharreko alderdia da hori.

Bestalde, ahalegin handia egin dugu, batetik, Koordinakundearen kontratatutako pertsonen lan baldintzak jasotzen dituzten hitzarmenak eguneratzeko eta, bestetik, lankidetzaren sektorearen barruan hitzarmen propio baten behararen inguruan hausnartzeko.

2008an, Koordinakundearen barruan genero politika bat sortzeko prozesua abiarazi da. Horretarako, sentsibilizaziorako eta lan taldeak sortzeko lehen fasea burutu da, zeina beharrezkoa baita 2009an autodiagnostikoa egiteko bigarren fasea abiarazteko.

2008an zehar gobernu batzordearen postuak txandakatu dira eta alderdi hori kontuan hartu behar da etorkizunean, izan ere, negatiboki eragiten baitu Koordinakundearen funtzionamenduan.

## Gizarte-eraldaketa eta eragin politikoa

Erakunde mailako eragin politikoaren arloan, Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren eta Donostiako Udal Kontseiluaren araudiaren inguruan egindako lana nabarmendu nahi dugu. Horietan parte hartu dugu eraketa araudiari ekarpenak eginez.

Lankidetzaren Legetik eratorritako prozesuak landu ditugu, besteak beste, Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Erakundearen arteko Batzordearen sorrera. Bestalde, ekarpenak egin zaizkio Genero berdintasunari buruzko Dekretuari eta Aldundien Plan Zuzendariari (lehen fasean). Aipatzekoa da baita ere Gipuzkoako lankidetzaren deszentralizatuari buruzko datuak biltzen eginiko ikerketa lana. Era berean, autonomi erkidegoko hauteskundeetan, alderdi politikoen hauteskunde programen jarraipena egin da. Bestalde, lankidetzaren inguruko segimendua ere egin dugu parte hartzen dugun Lankidetzaren Kontseiluetan.

2008an egindako ahalegin gehienak Koordinakundearen Dokumentu Markoa egitera zuzendu ditugu, horrela, posizionamendu jakin batzuk argitzeko modu bateratuan.

Hainbat kanpainatan parte hartu dugu eta lan handiagoa egin dugu hedabideekin, GGKE eta komunikabideen arteko topaketa espezifikoaren bidez. Hedabideetako etorkizuneko profesionalen zuzendutako Hegoaldeko Ikuspegiak Komunikazio Solidarioaren lehiaketaren bidez egindako lana ere azpimarratu behar da.



## GGKEei laguntzea

GGKEetan, prestakuntza ematen jarraitu dugu eurek eskatutako alderdietan, hala nola, Borondatezko Lankideen Estatutuan.

2008an, arrakastaz amaitu da Koordinakundeko hamar GGKEei beren erakundeetan genero ikuspegia sartzeko emandako laguntza prozesua eta 2009an argitalpen bat egingo da.

Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordeak Kodeari buruzko galdeketa azterketa prozesuarekin jarraitu du, Koordinakundeko GGKE guztiek adostu baitzuten galdeketa hori egitea.

Gogoratu nahi dugu, era berean, 8oko hamarkadan sei GGKEk elkartzeko eta koordinatzeko beharra ikusi zutela gizarteari eta erakundeei ezagutzera emateko gure lankide diren herrialde askok bizi duten bidegabeko egoera eta etorkizunari begira lankidetzarako konpromiso serio bat aldarrikatzeko.

2008an Euskadiko GGKEen Koordinakundeak 20 urte bete ditu, eta horregatik eskerrak eman nahi dizkiegu euren ekimenari esker eta beste mugimendu sozial batzuekin koordinaturik % 0,7 bezalako kanpainak egin zituzten erakundeei eta Bilboko Areatzan egingako kanpaldian parte hartu zutenei, izan ere, oihartzun handia izan baitzuten.

Azkenik, aipatu nahi dugu erakundeek gero eta gehiago hartzen dutela parte Koordinakundeak lurralde bakoitzean dituen gune desberdinetan. Horregatik, erakunde horiei eskertu nahi diet egin duten ekarpen eta lan desinteresatua, izan ere, laguntza hori gabe ezinezkoa bailitzateke 2008an egin dugun lan guztia egitea.

**Puri Pérez Rojo**  
Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Lehendakaria





### GGKEen Euskadiko Koordinakundea

1988an sortu zen kide diren GGKEen jarduerak ahalik eta koordinatuenak, koherenteenak, egokienak eta errespetuzkoenak direla ziurtatzeko, eta horrek berekin dakar elkarren artean, hausnartzea, eztabaidatzea eta lan egitea.

Hasieran 11 kide fundatzailez osatu bazen ere, 2008aren amaieran, 78 GGKE ditu eta 110 egoitza baino gehiago Euskadiko lurralde historikoetan.

Urte hauetako esperientziaren ondorioz, GGKEen Koordinakundearen lehentasunezko helburu batzuk adostu ditugu guztion artean:

- Kide diren GGKEen arteko koordinazioa hobestea, garapenerako nazioarteko

lankidetzaren areagotzeko, erakundeen arteko ekintza bateratuak gauzatzuz.

- Sustatzen ari garen lankidetzaren ereduaren hausnarketarako espazio erkidea sortzea, Iparralde-Hegoaldean dauden harreman desberdinak aldatzeko.
- Euskal gizartearen Hegoaldeko herrialdeen errealitatearekiko sentsibilizatu, kontzientziatu eta prestatu.
- Tolerantzia eta elkartasuna bultzatu herri eta kulturen artean.
- Jendaurrean azaldu GGKEek eginiko lana.

## Misioa

Koordinakundeak garapen lanetan diharduten zenbait GKE biltzen ditu, GKE hauek Jokabide Kode bat dute eta giza garapen iraunkorraren eta genero berdintasunaren alde lan egiten dute.

Hona hemen Koordinakundearen lan arlo garrantzitsuenak:

- Erakunde publiko eta pribatuek hala nola Koordinakundeari elkartutako organizazioek kalitatezko garapena bultzatzen laguntzen.
- Koordinakundeko kide diren erakundeen prozesuak bultzatzea beren ahalmen politiko eta teknikoak indartuz.
- Eraldaketa soziala sustatzea elkartasunaren kultura bultzatuz hiritarren artean, desberdintasunak eta pobrezia areagotzen dituzten egiturak aldatuz eta gure garapen ereduari buruzko eztabaida sustatuz.

Hori guztia aurrera eraman nahian, Koordinakundeak topaguneak, eztabaida guneak eta hausnarketa guneak eskaintzen ditu erakunde kideek irizpide komun batzuk finka ditzaten, gainera, eragin politiko eta soziala garatzen du, aliantzak bideratzen ditu beste mugimendu sozial batzuekin eta presentzia publiko handiagoa aldarrikatzen du. Era berean, erakundeen ahalmena indartzen eta erakundeen arteko aliantzak errazten ditu, erakundeen baliabideak jendeari helaraziz eta alderantziz.



## Barne antolaketa

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen organo nagusia Batzorde Orokorra da. Urtean behin batzen da urteko oinarrizko irizpide eta jardueraren ildoak zehazteko. Bestalde, Batzorde Orokorrean hautatzen dira instantzietako ordezkari izango diren karguak.

Batzorde Orokorra urtean behin (gutxienez) batzen denez, Gobernu Batzordea da Koordinakundearen organo exekutiboa. Hilean behin egiten diren Lurralde Batzordeetan hartutako erabakiek aholkatzen dute Gobernu Batzordea eta batzordeetako erabakiak betearaztea du helburu.

Gainera, lana eragingarriagoa izan dadin, lurralde bakoitzean Lan-taldeekin lan egiten da. Lan-talde hauek talde txikiagoak dira eta GGKE guztientzat irabazasmorik gabe lan egiten duten hainbat GGKEetako kideez osaturik dago.

Hauek dira hiru lurralde historikoetan ditugun lan-talde operatiboak:

- Eragin Politikoa.
- Genero Taldea.
- Giza Mobilizazio eta Kanpaina Taldea.
- Komunikazioa.

Era berean, Jokabide Kodeari jarraipena emateko taldea ere badago.

Jendearentzako eta GGKEentzako zerbitzu bat ere badu, eskabideei erantzuna emanez hiru lurraldeetako Idazkaritza Teknikoen bitartez.

**Eta zuk, zer egingo duzu?**

17 de octubre  
**Día Internacional contra la Pobreza**

**Y tú, ¿qué vas a hacer?**

Urriak 17 Pobreziaren kontrako Nazioarteko eguna  
EL ARENAL (BILBAO)

17:30 Talleres, juegos y pasacalles de juguetes reciclados con LA RESIDUAL  
Taller de pancartas, exposiciones, comercio justo, mesas informativas...

19:30 **MANIFESTAZIOA**

20:30 Concierto con BOUHIA (música bereber)

EN ERE REAS





## Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordea

**Organo** honek jarraipen bat egiten du Koordinakundeko kide diren GGKEek Jokabide Kodea betetzen dutela egiaztatzeko. Helburu hori lortzeko, 2008an zehar aldizkako bilerak egin dira, non hainbat gai jorratu baitira.

Koordinakundean erakunde berriak sartzeko eskaerak jaso ondoren, Jarraipen Batzordeak eskaera horiek aztertu eta Gobernu Batzordeari bidali zizkion eskaera horien txostenak. Txosten horiek ontzat eman ondoren, GGKEak aktiboki parte hartzen hasi ziren Koordinakundeko lan talde batzuetan, sei hilabeteko gutxieneko epean. Ondoren, 2008an eginiko Batzarretan sei GGKE hauek aurkeztu ziren eta behin betiko sartu ziren Koordinakundean:

Sodepaz Euskadi - Garapenerako eta Baserako Elkartasuna-, Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingeniaritza IC-LI, Mundukide, Bakea ta Duintasuna eta Save the Children.

Gainera, Jokabide Kodea betetzen jarraitzeko, Koordinakundeko kide diren GGKE guztiei galdeketa bat bidali zitzairen eta jasotakoak berrikusi dira. 2007ko batzarrean adostu zen GGKE guztiek ahalegina egin behar zutela galdeketa betetzeko, horrela, batetik, euren erakundeko kide guztiei Jokabide Kodearen irizpideak ezagutzera emateko, eta, bestetik, bertan markatutako parametroen onarpenari buruzko etengabeko autoebaluazioa egiteko.

Jarraipen Batzordeak presentzia izan du Estatu mailan ere, izan ere, Madrilen egindako Jarraipen Batzordeen Urteko Topaketan parte hartu baitu. Topaketa hartan autonomi erkidegoetako koordinakunde bakoitzean bizi izandako prozesuak trukatatu ziren.

2008an hiru bilera egin dira Anesvad erakundearekin Jarraipen Batzordeak erakunde honetan planteatutako aldaketen berri izan dezan.

Jokabide Kodearen hainbat aldaketa onartu ondoren, 2007ko ekainaren 23ko Ohi-ko Batzar Orokorrean Jokabide Kodea berrargitaratzeko lanak egin dira, bere idazketa fasean.

2008ko Jarraipen Batzordea honakoek osatu dute: Itziar Hernández, Lara González, Carlos Askunze, Dominic Wyatt eta Puri Pérez.







**2008an zehar**, Koordinakundeko Genero Arloak lanean jarraitu du generoaren ikuspegia Koordinakundearen barruan dauden GGKEen eguneroko lanean sartzeko. 2008ko jarduera nagusia, bere garrantziagatik zein eskainitako denboragatik, Koordinakundeko Genero Taldeak diseinatu eta aplikatutako genero ikuspegia ezartzeko prozesua izan da. Lan horren helburu nagusia izan da genero transbertsalizazioa ezartzea erakunde bakoitzean, lankidetzeta programa eta proiektuetatik haratago. 2008an zehar amaitu da 10 GGKEekin hasi den prozesua, ebaluazio tailerrak antolatu dira eta sistematizazio bat ere egin da ondoren argitaratu eta banatzeko. GGKEekin jarraitutako prozesu horren helburua zen genero berdintasunarekiko konpromisoetan aurrera egitea, esparru hauetan: erakundeetako politikak, erakundearen egi-

tura, erakundearen kultura eta lankidetzeta eta garapenerako hezkuntzako proiektu eta programak.

Gainera, Genero Taldeak Euskadiko GGKEen Koordinakundera egokitu du prozesu hori. Horretarako, sentsibilizatorako eta lan taldeak sortzeko lehen fasea burutu du, zeina beharrezkoa baita 2009an autodiagnostikoa egiteko bigarren fasea abiarazteko. Esan bezala, prozesua Koordinakundeari moldatu zaio, batez ere, GGKEen eta Koordinakundearen arteko egitura eta antolaketa mailako desberdintasunei dagokienean, eta egoitzapen edo moldaketa horrek helburu espezifiko bat du: planifikazio estrategikoa bete eta genero politika bat izatea Euskadiko GGKEen Koordinakundearen esparruan.

Bestalde, Koordinakundearen Genero Taldea erakunde publikoekin elkarlanean aritu da, genero ikuspegia lankidetzaren arloan ezartzeko. Genero Taldeak eta bere arduradunak eragin politikoko lana egin dute euskal erakundeekin, generoaren ikuspegia garapenerako lankidetzaren eremu guztietan ezartzeko. Zentzu horretan, lan nagusia Eusko Jaurlaritzako Lankidetzaren Zuzendaritzarekin gauzatu da, bere Dekretuari ekarpenak eginez, horrela, genero berdintasunaren aldeko aldaketa prozesua sustatzeko; lan handia egin da baita ere Bizkaiko Foru Aldundiarekin, zeinak genero ikuspegia ezartzea baldintza baztertzaila gisa sartu baitzuen 2008ko proiektuen deialdian.

Jarduera horiek lan taldearen agendaren zati handi bat hartu dute, baina, horiez gain, 2008an zehar azaroak 25 Koordinakunde Feministan parte hartu da, mugimendu feministaren eta Koordinakunde Gen-

ero Taldearen arteko sinergiak elkartzen jarraitzeko. Bestalde, aliantzak lortu eta lan leerro berriak zehazteko xedearekin, Hegoaldeko emakumeen erakunde bat Euskadira etorri den bakoitzean, Genero Taldearen eta erakunde horren artean bilerak egiten saiatu da, esperientziak trukatu eta elkarrekin lan egiteko aukerak aztertzeko.

Era berean, 2008an urteko hiru bilera egin dira Estatuko Genero Taldearen eta hainbat talde autonomikoren artean, lan bateratua egiteko Estatu zein Europa mailan. Gainera, Arabako Komunikazio Taldean parte hartu da eta baita ere Euskadiko GGKEen Koordinakunde Planifikazio Estrategikoaren Taldean. Azkenik, Koordinakunde Genero arduradunak generoari buruzko eta garapenerako lankidetzari buruzko hainbat ikastaro, jardunaldi eta mintegitan parte hartu du eta hitzaldiak ere eman ditu, generoaren ikuspuntua emanez.







**Eragin Politikoko Arloak** harreman fin-ko eta onak ezarri ditu Euskadiko lankidetzako politikak garatzeko lanean inplikaturik dauden eragile nagusiekin, horretarako, erakundeetako agendari erantzuna ematen jarraituz. Gainera, bultzada handia eman zaio Eragin Politikoko Dokumentu Markoaren garapeneri. Helburua oinarritzko printzipioak eta posizionamenduak biltzea da, ondoren Koordinakundeak oinarri eta hausnarketarako erabil ditzan lankidetzako politika publikoekin lotutako alderdietan: %0,7 Garapenerako Laguntza Ofizialerako, erakunde publiko eta pribatuen egitekoa garapenerako lankidetzan eta laguntzaren kalitatea, besteak beste. 2008an, Dokumentu Marko horren bost gai aurkeztu dira: lankidetzaren printzipioak, garapenerako hezkuntza, erakunde publikoek eman beharreko diru kopurua, ekintza humanitaria eta erakunde pribatuen egitekoa.

Bestalde, Koordinakundeak ordezkari izaten jarraitu du Lankidetzako Aholku Kontseiluan eta bere ordezkariak aukeratu ditu Lankidetzarako Euskal Kontseilu berrian. Kontseilu barruan marko arautzaileari buruzko posizionamendu eta ekarpenak adostu dira, gero aurkeztu eta erakundeekin negoziatzeko. Zehazki, hauek izan dira adostu direnak: Eusko Jaurlaritzako Programen Dekretua, Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzendaria 2008-2011, Eusko Jaurlaritzako Erakunde Arteko Batzordearen Araudia, Lankidetzako Euskal Agentziaren Legea, eta Aldundien Plan Zuzendaria. Gainera, Lankidetzarako Euskal Legearen jarraipena egin da.

Espainiako Garapenerako GKEen Koordinakundearekin izandako harremani dagokienean, 2008an Eragin Politikoko taldeak jarraipena egin eta erakunde horren Koordinakunde Autonomikoen taldean parte hartu du.

Lurralde mailan, Araban Eragin Politikoko Taldeak ekarpenak egin dizkie Arabako Foru Aldundiko diru-laguntzen deialdien oinarriari eta sakonki aztertu du Gasteizko Udalaren urte anitzeko deialdia. Bestalde, Aldundien Plan Zuzendariaren jarraipena egin da, Arabako alderdi garrantzitsuenetan arreta berezia jarritz. Gasteizko Lankidetzako Kontseiluko lan taldean parte hartu eta haren lan agendaren jarraipena egin da. Beste ekimen batzuen artean, Kontseilu horretan proposamen bat aurkeztu da sentsibilizazioko erakunde bidaien protokoloari buruz.

Bizkaian Eragin Politikoko Taldeak presentzia izan du Bilboko Lankidetzako Kontseiluan eta haren lan agendaren jarraipena egin du urte osoan zehar. Koordinakundeak ekarpenak egin dizkie Bilboko Udaleko ekintza humanitarioaren deialdiko oinarriari eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urte anitzeko deialdiari. Era berean, jarraipena egin dio Aldundien Plan Zuzendariari, Bizkaiarentzat interesgarriak diren alderdietan oinarrituz.

Gipuzkoan Eragin Politikoko Taldeak presentzia izan du Donostiako Lankidetzako

Kontseiluan eta haren lan agendaren jarraipena egin du. 2008an amaitu da Gipuzkoako lankidetzako publikoari buruzko ikerketa, zeinak aztertzen baititu zeintzuk diren Gipuzkoako erakundeek (Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoako Batzar Nagusiak eta Udalak) 2005 eta 2007 bitartean gauzatutako nazioarteko lankidetzako politika publikoen ezaugarriak. Azkenik, Aldundien Plan Zuzendariaren jarraipena egin da, arreta berezia jarritz Gipuzkoarentzat garrantzitsuenak diren alderdietan.







**Kanpaina eta Mobilizazio Sozialen Arloak** gure inguruko gizartearen eraldaketa sustatzen jarraitu du, herritarren artean elkartasunaren kultura bultzatuz eta ezberdintasunak eta pobrezia sortzen duten egituren aldaketa faboratuz. Horretarako, funtsezkoa izan da beste erakunde, antolakunde eta mugimenduekin eginko sare lana. Harreman hori sustatu eta sendotu dugu, ekintza komunak eta partekatuak sortuz edo daudenak bultzatuz: Pobrezia Zero Plataformak, Legegintzazko Herri Ekimena txirotutako herrialdeekiko justizia eta elkartasunaren alde, Palestinarren elkartasunerako Mewando Sarea, SOS arrazakeria, REAS (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea), EAPN (Euskadiko pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeko sare europarra), talde eta mugimendu interna-

zionalistak, sindikatuak, Euskadiko Gazte Kontseilua, Elkarte Ekonomikoko Akordioen Kanpaina, Joko Garbia...

2008an, Pobrezia Zero Kanpainarekin jarraitu da jarduera eta ekintza ugari gauzatu: Ekintza Globalaren Astea, Tolledoko Pobrezia Zeroko topaketa, nazioarteko ekitaldiekin bat datozen jarduerak, hala nola, G8aren bilera edo Pobrezia Zero aurkako Nazioarteko Eguna. Prestakuntza, hausnarketa, kaleko ekintzak, sentsibilizazioa, salaketa, hitzaldiak, bideo-foruma, materialen hedapena, topaketak, tailerrak ikastetxeetan... Horien bitartez, Milurtekoaren Garapenerako Helburuak lortzeko falta diren erronken eta egindako aurrerapenen berri eman nahi izan zaie herritarrei.

Beste behin ere parte hartu da Munduko Foro Sozialean, gizarte zibileko mugimendu, sare eta erakundeen topaketa irekian, non neoliberalismoaren eta kapitalak eta inperialismoak menperatutako munduaren aurka dauden elkartzen baitira, pentsatzeko, eztabaidatzeko eta proposamen alternatiboak formulatzeko. 2008ko zortzigarren edizioan ez zen leku bakar batean zentralizatu. Mugimendu sozialak, kolektiboak eta erakundeak mobilizatu ginen planeta osoan barrena, erresistentzia ahots desberdin baina bateratu batekin. Urtarrilaren 26a aukeratu zen, Ekintza Globalaren Eguna eta Davos-eko ekonomiari buruzko goi mailako bilera batera egokitu zitezten. Davosen mundu zaharra bildu zen, bere ekonomialari, aditu eta ideologekin, hots, indarkeria, esplotazioa, lan prekariotasuna, bazterkeria, pobrezia eta askatasun murrizketa bultzatzen duten ideiekin. Horien aurrean, mugimendu sozialek gure mintzoa goratu dugu mundu berri bat lortzeko. Koordinakundea deialdira batu zen, hiru lurraldeetan ekintzak gauzatzuz: Carlos Taiboren hitzaldia, kontzentrazioak, zineforuma, manifestazioak...

Bizkaiari hausnarketa eta eztabaida sustatu da, GGKEen *erronkak mundu globali-*

*zatu batean* izeneko mahai-inguruan, zeinaren helburua baita egungo erakundearen papera aztertzea: *erronkak, konpromisoak, zailtasunak, mugak, kontraesanak...*

*Mundu zabala, errealitate anitz* sentsibilizazio jardunaldiaren seigarren edizioa egin zen Donostian, irailean. GGKEok paper garrantzitsua jokatzen dugu nazioarteko lankidetzaren arloan gizartearen dauden elkartasuna adierazteko. Egiteko hori lortzeko, ezinbestekoa da herritarrek GGKEak zer garen eta zer egiten dugun ezagutzea eta euren lankidetzari esker zein proiektu garatzen den jakitea. Sentsibilizazio jardunaldi honek helburu horretan sakontzen du eta, aldi berean, Hegoaldeko herrialdeen errealitate desberdin eta heterogeneoetara gerturatzen gaitu.

Denbora honetan, prestakuntzaren aldeko apustua egiten jarraitu dugu, Gasteiz eta Eibarren sentsibilizatorako sormen ikastaro-tailer bat antolatuz. Ikastaro-tailer horretan, jarduera originalagoak gauzatzeko baliabide eta teknikak lantzen dira, mezuak modu argi eta eraginkorragoan transmititzeko.







**Komunikazioaren Arloak** lan taldeek eta Koordinakundea integratuta dauden plataformek antolatutako jarduerak zabaltzen lagundu du. Hona hemen adibide batzuk: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eginiko mobilizazioak Pobreziaren aurkako Nazioarteko Egunaren kariatara, Donostian eginiko *Mundu zabala, errealtate anitz* sentsibilizazio jardunaldia, edo Ekintza Globalaren Astea, besteak beste.

2008an zehar, Arabako Komunikazio Taldeak *Hegoaldeko Ikuspegiak* Kazetaritza Solidarioaren lehiaketaren lehen edizioa abiarazi du, zeinaren helburua baita, batetik, gazteen artean elkartasuna eta lankidetzaren sustatzea, eta, bestetik, hedabideetako etorkizuneko profesionalak hobeto trata ditzatela garapen bidean dauden herrialdeei buruzko mezuak. Ekimenaren lehen edizioan *Raíces de un territorio olvidado* ikus-entzunezko dokumentalak irabazi zuen lehiaketa.

2008aren amaieran, Hegoaldeko Ikuspegiak Komunikazio Solidarioaren Lehiaketaren bigarren edizioa abiarazi zen, bi nobedaderekin: hiru lurraldeetako erakundeek eta Eusko Jaurlaritzak finantzatu zuten lehiaketa eta Publizitate eta Harreman Publikoko ikasleei zabaldu zitzaizen parte hartzeko aukera. Gainera, Lankidetzaren Bulegoaren eta EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen laguntza izaten jarraitu da. Bestalde, lankidetzaren hitzarmenak berriro ziren hainbat komunikabiderekin (Cadena Ser, Euskadi Irratia eta El Correo) eta lehiaketako oinarriak eta kartelak egin ziren. Abenduan, Leioako EHUko instalazioetan prestakuntza tailerrak egin ziren, derrigorrez egin behar baitira lehiaketan parte hartzeko.

Bestalde, txirotutako herrialdeei buruzko informazioaren tratamendua hobetzeko eta Koordinakundea Euskadin informazio

erreferente bihur dadin nazioarteko lankidetzan, GGKEen eta komunikabideen arteko topaketak egin dira Araban eta Bizkaian, non interes eta gaurkotasun gaiak jorratu baitira.

Era berean, Araban eta Bizkaian datu barseak egin dira lankidetzan edo elkartasun gaiak jorratu nahi dituzten kazetarien kontaktuekin eta GGKEen artean banatu dira. Gainera, bozeramaileei buruzko hainbat ikastaro egin dira Bizkaian eta Gipuzkoan komunikazio trebetasunak hobetzeko.

Arabako Irrati Taldeak hileko programa bat egin du Ola 19 irrati asoziatiboan: *Sintoniza tu Sur-Piztu zure Hegoa*, non gai desberdinak jorratzen baitira ikuspegi kritiko batetik. Urtean zehar hainbat artikulua, prentsa-ohar, informazio eta abar argitaratu dira. Gainera, elkarrizketak

eta erreportajeak (prentsa idatzian, telebistan, irratian) ere egin dira. Bestalde, Onda Vasca irratiako asteroko konexioak ere egiten jarraitu da.

Azkenik, 2008an zehar, Koordinakundeko komunikazioarekin lotuta dauden hainbat gai landu eta hobetu dira: Komunikazio Planaren definizioa eta argitalpenen politika, kontuan hartuz xede den publikoa eta edukiak (kanpo buletina, memoria, Ahotsa, Jokabide Kodea), dossier eta antolakundearen materialak... Gainera, Ahotsa aldizkariaren hiru ale egin dira eta 1.500 hartzaile baino gehiagoren artean banatu dira: hezkuntza zentroak, hedabideak, gizarte-etxeak, liburutegiak eta erakundeak, besteak beste.







## Euskadi

Euskadiko Idazkaritza Teknikoaren Zuzendaritzak gauzatutako lanak Gobernu Batzordean eta batzarretan hartutako erabakietatik eratorritako egitekoen barruan kokatu dira, Koordinakundearen lan-planaren arabera.

Gauzatutako lanen artean, Idazkaritza Teknikoaren Zuzendaritzak segimendua egin die 2008an Koordinakundearen erakunde finantzariekin sinatutako hitzarmenei. Hala, idazkaritza horrek kudeatu du Eusko Jaurlaritzako Lankidetzaren Zuzendaritzarekin sinatutako biurteko hitzarmena. Horrez gain, erakundeekin hiru lurraldeetan sinatzen diren hitzarmenak ikuskatu ditu.

2008an, bi batzar egin ziren. Maiatzean Gasteizen egindako ohiko batzarrean, Lankidetzari buruzko Dokumentu Marko-



aren zenbait artikulua aurkeztu ziren, Koordinakundeko GGKE batzuekin genero ikuspegia sartzeko jarraitutako prozesuaren berri eman zen, eta ondoko erakundeak Koordinakundearen sartu ziren: Sodepaz Euskadi –Solidaridad para el Desarrollo y la Paz-, Ingeniería para la Cooperación- Lankidetzarako Ingeniaritza IC-LI, Mundukide eta Paz con Dignidad. Gainera, hainbat aldaketa egin ziren Barne Erregimeneko Araudia aldatzeko.

Azaroan Bilbon egindako aparteko batzarrean, barne gaiak aztertzeaz gain, Save The Children GGKEari ongietorria egin zitzaion, Koordinakundearen kide berri gisa. Ondoren, Dokumentu Markoari buruzko jardunaldi hausnartzaile bat egin zen.

Bestalde, Koordinakundeak kontratatutako langileekin zerikusia duten egitekoak gauzatu ditu Zuzendaritzak. Gainera, kontratazio prozesuetan parte hartu du kontratu berriak egin direlako Genero Arduradunaren amatsun-baja eta Arabako Idazkari Teknikoaren eta Komunikazio Arduradunaren lanpostuak betetzeko; azken hori Gasteizko egoitzan dagoen lanpostu bat da eta 2008an sortu zen. Azkenik, kontratatutako langileen hainbat ebaluazio egin ziren.

Bestalde, Zuzendaritzak lotura-lana egin du GGKEen Estatuko Koordinakundearekin eta, horretarako, Madrilgo CONGDeren Koordinakunde Autonomikoen taldearen bileretara joan da, jasotako informazioaren segimendua egin du eta informazio hori zabaldu du, Gobernu Batzordeari eta erakunde kideei helarazi die eta Lankidetzaren Deszentralizatuari buruzko Topaketan parte hartu du. Era berean, Zuzendaritzak beste koordinakunde autonomiko batzuekin harremanetan jarraitu du, eta ildo horretatik, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen planifikazio estrategikoren prozesuaren aurkezpenean izan zen Andaluziako Koordinakundearen.

Aldi berean, Gobernu Batzordeari lagundu dio bilerak, gai-zerrenda eta akta prestatzen eta baita ere dokumentuak idazten, hartutako hitzarmenen segimendua egiten eta hileko kudeaketa txostenak garatzen, besteak beste. Bestalde, Zuzendaritzak kudeaketa eta administrazio lanak gauzatu ditu.

Euskadiko zenbait erakundek Koordinakundearekin batera antolatutako *Gure lana hobetzen: lan-baldintzak GGKEetan* jardunaldiak amaitu ondoren, beste jardunaldi bat prestatu zen erakunde koentzatat alor horretan sakontzen jarraitzeko eta Bilbon egin zen martxoan.

## Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

Oro har, Koordinakundeko Idazkaritza Teknikoek 2008an zehar egindako funtsezko lana izan da GGKEak indartzea eta laguntzea. Gainera, jendearentzako arreta-zerbitzuak egin dira (kudeaketa ekonomikoa, lan-poltsa, zerbitzuen kudeaketa, bisitak, erakundeei egindako dohaintzen koordinazioa, argitalpenak eta materialak banatzea, informazioa kudeatzea...).

Aurten, GGKEen parte-hartzea aktiboa izan da. Araban gutxi gorabehera 23 erakundek hartzen dute parte Koordinakundearen guneetan (lan-taldeak, taldeak, lurraldeko batzar...), Bizkaian, 44 erakunde inguruk eta Gipuzkoan 31 erakundek gutxi gorabehera.

Lurraldeka, Araban beste mugimendu sozial batzuekiko harremanak estutu dira, Harresiak Apurtuz-ekin esaterako. Harresiak Apurtuz etorkinei laguntzeko Euskadiko GGKEak koordinatzen dituen erakundea da eta jakinarazi du Gasteizen egoitza bat irekiko duela. Harreman egonkorrak mantendu dira beste erakunde batzuekin, Erdu erakundearekin esaterako, erakunde horren ekimenak kide diren GGKEen artean zabaltzen lagunduz. Bestalde, Elkarteen Legeari buruzko hitzaldi informatzaile bat antolatu da. Gainera, nabarmendu behar da gune bat utzi dela kide diren GGKEen materialak biltzeko. Azkenik, Gasteizko egoitzaren leku aldaketa ere aipatu behar da. Arabako Ordezkaritza Rogelia de Álvaro Elkarteen Etxean egon ondoren 8 urtez, Simone de Beauvoir Elkarteen Etxean dago 2008tik.

Bizkaian, Dokumentazio Zentroa jarri da martxan. Zentro horrek modu informatizatuan jasotzen ditu hainbat argitalpen, eskuliburu, aldizkari, bideo eta Nazioarteko Lankidetzaren alorreko beste material batzuk. Bestalde, 2008an Bizkaiko Idazkaritza Teknikoak Koordinakundeko kide ziren GGKEei zenbait bileretan parte hartzeko deialdia luzatu zien. Topaketa hauek GGKEen egoera eta errealtate ezberdinak ezagutzeko, Koordinakundeari euren beharrak eta eskakizunak azaltzeko, Koordinakundearekiko zuten



harremana jakinarazteko eta honi zertan eta nola lagundu hausnartzeko balio izan zuten. Deialdi honetan kide ziren Bizkaiko 52 erakundetik 32k parte hartu zuten 12 bileretan. Azkenik, Nikaraguan lan egiten duten GGKEekin antolatutako topaketa nabarmendu behar da. Topaketaren xedea zen informazioak egiaztatzea, kezkek partekatzeta eta Gobernuak erakunde sozialei, lankidetzara erakundeei eta batez ere emakumeen taldeei egindako erasoaren ondoren Nikaraguan sortu den egoeraren inguruan eztabaidatzea.

Gipuzkoan, 2008an zehar datuak jaso dira *Gipuzkoako GGKEen Gida* garatzeko, zeinak lurralde horretako 82 GGKEren fitxa informatzaile bat eskaintzen baitu. Gipuzkoako gazte informazio zerbitzuen lankidetzarekin Kooperante joan nahi duzu? txosten informatzailea zabaldu da. Txosten horrek herrialde pobretuetan laguntzeko dauden aukerak jasotzen ditu. Gainera, hainbat hitzaldi informatzaile egin ziren gai horren inguruan. Gipuzkoako Idazkaritza Teknikoak Donostian egin zen bidezko merkataritzari buruzko prestakuntza tailer bat koordinatu zuten GGKEetako pertsonentzat.


Koordinakundeko Idazkaritza Teknikoek lurraldeko batzarrak egiten dituzte aldizka, lan koordinatua hobetzeko. 2008an zehar, bi hilean behin, bost batzar egin dira Bizkaian, bederatzia Gipuzkoan eta hamar Araban. Araba eta Gipuzkoan GGKEen bilera horiek hilean behin egin dira.

Horrez gain, etengabeko informazio-zerbitzua eman zaie GGKEei: Hegoaldeko herrialdeak bisitatzeko moduak, deialdiak, diru laguntzak, lan-eskaintzak, boluntario-lana, prestakuntza eta albisteak, besteak beste.


Zenbait kasutan, Idazkaritza Teknikoek bilerak eta topaketak antolatu dituzte Euskadin bisitan dauden Hegoaldeko erakundeekin, loturak sendotzeko eta indarrak batzeko. 2008an erakunde hauekin egindakoak nabarmentzen dira:

- Kolonbiako Humanizar Korporazioa.
- El Salvador-eko Redes eta Las Melidas erakundeak.
- Mexikoko Fondo para la Paz erakundea.


Bestalde, Idazkaritza Teknikoetatik partikularrek, elkarteek, taldeek, ikastetxeek... egindako eskaerei erantzun zaie. Hala, 2008an, Araban, batez beste, 600 kontsulta erantzun ziren, Bizkaian 630 baino gehiago eta Gipuzkoan 980 baino gehiago. Ondoko grafikoan ikus daitekeen bezala, kontsultak egiteko telefonoa erabiltzen da gehienbat, ondoren, posta elektronikoa eta azkenik kontsultak egiteko lekura bertaratzea.



Koordinakundea lankidetzako erreferente gisa erabiltzen dutenek, batez ere, erakundeetan boluntario-ekintzak egiteko aukerei buruz galdetzen dute. Horren ondoren, Koordinakundeko dohaintzei eta lan-poltsari buruzko informazioa eskatzen dute gehien. Hala ikus daiteke grafiko honetan:



Bestalde, GKEak, bestelako erakunde eta elkarteak eta komunikabideak sarritan jartzen dira harremanetan Koordinakundearekin gai askori buruzko informazioa jasotzeko: laguntza eskatzea, GGKEei buruzko jarduerak zabaltzea, lankidetzak, dohaintzak eta Koordinakundeari buruzko informazioa. Grafiko honetan ikus daiteke erakundeek gehien eskatzen dutena GGKEei buruzko informazioa dela eta ondoren datoz laguntza eta materialak eskatzea edo jarduerak zabaltzea eta, azkenik, deialdiei edo administrazio-izapideei buruzko informazioa.



Azkenik, garrantzitsua da nabarmentzea Gipuzkoan eta Araban jarduera berezi bat egin dela GGKEen eta beren ekintzen elkar ezagutza eta koordinazioa sustatzeko eskualde eta koadrila desberdinetan. Horrela, Araban eta Gipuzkoan berariazko lanak egin dituzte -hiriburuetan bakarrik zentralizatu gabe- GGKEen presentzia bultzatzeko helburuarekin (lankidetzaren arloan lan egiten duten pertsonekin harremanetan jartzea, Hegoaldeko herrialdeen errealitateari buruzko sentsibilizazioa lantzea, jarduerari buruzko informazioa eta koordinazioa). Besteak beste, ekintza hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Araban Koordinakundeko GGKEei elkarrizketak egin zaizkie informazioa biltzeko sentsibilizazio baliabideen eta garapenerako hezkuntzaren inguru-

ruan. Elkarrizketa horiek egin ondoren, dossier bat eta datu base zabal bat egin dira. 2008an hasi zen *Sentsibilizazio baliabideen eta garapenerako hezkuntzari buruzko gida* hau banatzen GGKEetan, erakundeetan eta ikastetxetan, besteak beste. Bestalde, GGKEen presentzia Araban sustatzeko xedez, Amurrio eta Laudioko azoka solidarioetan parte hartu da.

- Gipuzkoan, Debagoiena Eskualdeko Batzarra sortu da, non tokiko lau GGKEek parte hartzen baitute. GGKE horiek etengabe koordinaturik eta komunikaturik daude Lurraldeko Batzarrarekin. Azkenik, Gipuzkoan Zero Pobrezia kanpainaren materiala banatzen egindako lana azpimarratu behar da, non bost plataforma aktiboki lanean ari baitira. Gainera, Koordinakundeak parte hartzen du plataforma horietan.





## Gobernu Batzordea

**Lehendakaritza:** Puri Pérez, Mugarik Gabe. **Lehendakariordetza:** Ana María Arriola, Nazioarteko Elkartasuna. **Idazkaritza:** Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY eta Ruth Fernández, UNESCO Etxea (urtearen sasoi ezberdinetan). **Diruzaintza:** María del Mar Magallón, Alboan. **Arabako Ordezkaritza:** Yolanda Barco, Haurralde Fundazioa. **Bizkaiko Ordezkaritza:** Jaime Bernar, Zabalketa. **Gipuzkoako Ordezkaritza:** Mertxe Digón, Interred. **Batzordekidea:** Ruth Quintana, Euskadiko Elkarbidea. Yoanna Amondarain, Adsis Fundazioa (urtearen sasoi ezberdinetan). **Batzordekidea:** Ana Mokoroa, Elan Euskadi. **Batzordekidea:** Sonia González, Paz y Solidaridad.

## Lan-taldeak

### Generoa

Amaia Iguarán, Ayuda Más. Ana Bengoetxea, Leonekin. Ángela Valverde, Bakea eta Duintasuna. Bárbara Basoa, Economistas Sin Fronteras. Beatriz de Lucas, Mundubat. Covadonga Apaolaza, Fundeso. Isabel Uría, Asociación Amigos y Amigas de la RASD de Bizkaia. Santi Martínez, Paz y Solidaridad. María Asun Ibarra, Interred. María Viadero, Mugarik Gabe. Mila Dominguez, Adeco. Susana Mateo, Zabalketa. Mónica Fernández, Euskadiko Elkarbidea. Jorge Correa, Nazioarteko Elkartasuna. Ainhoa López, Ana Gómez, Bego Dorronsoro, Clara Murguialday, Dominic Wyatt eta Lara González taldean boluntarioak izan ziren.

## Eragin Politikoa

### Euskadi

Emilio López, Edex. Nerea Basterra, Intermón Oxfam. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Sara Maza, Nazioarteko Elkartasuna. Regina Zalbidea, FISC Tercer Mundo. Jesús Ochoa, Economistas Sin Fronteras. Cristina Gonzalo, Cáritas Bizkaia. Koldo Muro, Cáritas Gipuzkoa. Puri Pérez, Mugarik Gabe. Estíbaliz Gómez de Segura, Mugarik Gabe. Xabier Martinez, Mugarik Gabe. Olga García, Educación Sin Fronteras. Isabel Portillo, Sodepaz. Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Eduardo Sánchez, Emaús Fundazioa. Amaia Iguarán, Ayuda Más. Jaime Bernar, Zabalketa. Nacho Eguizabal, Alboan. Alicia Alemán, Alboan.

## Araba

Luis Royero, Asociación Africanista Manuel Iradier. Paloma Díaz, Foro Rural Mundial. Itziar Inza, Medicusmundi Araba. Alberto Cereijo, Setem Hego Haizea. Zuriñe López, Setem Hego Haizea. Ainhoa Oceja, Save the Children. Estíbaliz Gómez de Segura, Mugarik Gabe. Ainhoa Cuadrado, Paz y Desarrollo.

## Bizkaia

Alicia Alemán, Alboan. Emilio López, Edex. Nerea Basterra, Intermón Oxfam. María Arrieta, Gazteak eta Garaipena. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Sara Maza, Nazioarteko Elkartasuna. Regina Zalbidea, FISC Tercer Mundo. José María Navajas, Economistas Sin Fronteras. Mónica Hernando, Mundubat. Jaime Bernar, Zabalke-ta. Cristina Gonzalo, Cáritas Bizkaia. Amaia Iguarán, Ayuda Más. Jesús González, Mugarik Gabe. Olga García, Educación Sin Fronteras.

## Gipuzkoa

Koldo Muro, Cáritas Gipuzkoa. Josune Igoa, Interred. Jesús Ochoa, Economistas Sin Fronteras. Xabier Martínez, Mugarik Gabe. Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Iñigo Odriozola, TAU. Jesús García, Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingeniaritza ICLI. Fernando Vaquerizo, Mundubat. Isabel Goenaga, Adra. Eduardo Sánchez, Emaús Fundazioa.

## Gizarte Mobilizazioa eta Kanpainak

### Araba

Daniel Galindo, Adeco. Yoanna Amondarain, Adsis Fundazioa. Lorena Fernández, Asociación Amigos y Amigas de la RASD. Laura Lorenzo, Foro Rural Mundial. Yolanda Barco, Haurralde Fundazioa. Francisco Izquierdo, Misiones Diocesanas. Edurne Rey eta Estíbaliz Gómez de Segura, Mugarik Gabe. Eva Silván, Save the Children. Janire Sáenz de Buruaga eta Beatriz Asensio, Serso Euskalherria/Tierra de Hombres-Gizakien Lurra/Save the Children. Lut Vasant, Setem Hego Haizea. Fátima Uribarren, Solive. Olga Serrano Ruiz, Tierra de Hombres-Gizakien Lurra.

### Bizkaia

Marta García Aldama, Adra. Carolina del Río eta María Lezáun, Alboan. Estitxu Izaguirre eta Paciencia Okon. Cáritas Bizkaia. Itziar Ereño, Interred. Ainhoa Olano eta Sofía Marroquín, Intermon Oxfam. Cuqui Lorenzo, Ingeniería Sin Fronteras. Pilar Pose, Justicia y Paz. Estíbaliz Gil, Médicos del Mundo. Lorea Burges, Mundubat. Jorge Lago, Ba-kea eta Duintasuna. Pedro Ramírez, Taldeka Lagunduz. Ruth Fernández, UNESCO Etxea. Pilar Oronoz, Zabalketa.

### Gipuzkoa

Kiko Jiménez, Adsis Fundazioa. Maitane Igartua, MSH Mundu Solidarioa Helburu. Ane García, Behar Bida-soa. Idoia Irigaray eta Maider Gorriti, Cáritas Gipuzkoa. Ana Mokoroa, Elan Euskadi. Lourdes Guruceta, FISC Euskal Herria. Arantza Garbizu eta Lurdes Fernández, Medicusmundi Gipuzkoa. Koté Urbieta, Mugen Gaietik. Laura Laborra, PROCLADE YANAPAY. Josean Echeberria, PROSALUS.

Gipuzkoan dauden Zero Pobreziaren 5 Plataforma ez dira hemen sartzen.

## Komunikazioa

Laura Ruiz, Foro Rural Mundial. Marian Uriarte, Izan Elkartea. Tere Burgi, Mundubat. Olatz Domínguez, PRO-CLADE YANAPAY. Laura Ciudad, Serso Euskalherria. Egoitz de la Iglesia, Serso Euskalherria. Maite Butrón, Serso Euskalherria. Natalia Rándeiz, Serso Euskalherria. Zuriñe López de Arana, Setem Hego Haizea.

## Irratia

Conchi Quintana. Foro Rural Mundial. Laura Ruiz. Foro Rural Mundial. Yolanda Barco. Haurralde Fundazioa. Esti Gómez de Segura. Mugarik Gabe. Laura Ciudad. Serso Euskalherria. Marta Larreina. Serso Euskalherria. Olga Serrano Ruiz. Tierra de Hombres-Gizakien Lurra.

## Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordea

Itziar Hernández, Lara González, Carlos Askunze, Dominic Wyatt eta Puri Pérez.

## Plan Estrategikoaren Taldea

Kideek ez dituzte GKEak ordezkatzen, Koordinakundeko estamentuak baizik.

Silvia de Gregorio langileen eta Bizkaiko ordezkaritzaren izenean, Jesús Ochoa Gipuzkoako ordezkaritzaren partez, Lara González kanpo aholkulari moduan, Puri Pérez Gobernu Batzordearen izenean eta Natxo Ribechini Koordinakundeko Zuzendaritzatik.

## Erakundeetan partaidetza

### Eusko Jaurlaritzako Aholku-Batzordea

Koldo Muro. Cáritas Gipuzkoa. Puri Pérez. Mugarik Gabe. Eduardo Sánchez. Emaús Fundazioa. Nacho Eguizabal. Alboan. Natalia Rándeiz. Serso Euskalherria. Sonia González. Paz y Solidaridad. Almudena Martín. Euskadi-ko Elkarbidea. Josu Perales. Mundubat. Nerea Basterra. Intermón Oxfam. 2008 urtean zehar euren karguak utzi dituzte: Josune Igoa, Interred, eta Xabier Anuzita, Mundubat.



## Bilboko Lankidetzako Udal-Batzordea

Cristina Gonzalo, Cáritas Bizkaia. Jesús González, Mugarik Gabe. Mónica Hernando, Mundubat. Carlos Cuervo, Medicusmundi Bizkaia, bere kargua 2008an utzi zuen.

## Vitoria-Gasteizko Garapen Lankidetzako Batzordea

Yolanda Barco, Haurralde Fundazioa.

## Donostiako Garapen Lankidetzako Batzordea

Fernando Vaquerizo, Mundubat.

## Talde Teknikoa

**Idazkaritza Teknikoaren Zuzendaritza**, Natxo Ribechini. **Arabako Idazkaritza Teknikoa**, Aurora Hermosilla, Noelia Ruiz (amatasun-bajagatik ordezkapena), Laura Imaz eta Olatz Domínguez (urtearen sasoi ezberdinetan). **Bizkaiko Idazkaritza Teknikoa**, Ana Gómez. **Gipuzkoako Idazkaritza Teknikoa**, Erika Erkizia eta Silvia Carballo. **Genero Arduraduna**, Silvia de Gregorio. **Eragin Politiko Arduraduna**, Natalia Rodríguez. **Gizarte Mobilizazio eta Kanpaina Arduraduna**, Idoia Aldama. **Komunikazio Arduraduna**, Jon González.

## Kideak diren GGKEak

Acción Verapaz Euskadi	Euskadi-Cuba	Medicusmundi Bizkaia
Acnur Euskal Batzordea	Euskadiko Elkarbidea	Medicusmundi Gipuzkoa
Adeco Amistad, Desarrollo y Cooperación	Fisc Euskal Herria	Misiones Diocesanas
Adra	Foro Rural Mundial	MSH Mundu Solidarioa Helburu
Adsis Fundazioa	FUNDESOS Fundación Desarrollo Sostenido	Mugarik Gabe
Alboan	Garapena	Mugen Gaietik
Amigos del Tercer Mundo	Gazteak eta Garapena	Mundubat
Arquitectos Sin Fronteras	Gizakien Lurra	Mundukide
Asamblea de Cooperación por la Paz	Haurralde Fundazioa	Munduko Medikak
Asociación Africanista Manuel Iradier	Hegoa	Nazioarteko Elkartasuna
Asociación Amigos y Amigas de la RASD Araba	Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako	OSALDE Asoc. por el Derecho a la Salud
Asociación Amigos y Amigas de la RASD Bizkaia	Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingenieritza IC-LI	Oskar Romero Solidaritza
Asociación Amigos y Amigas de la RASD Gipuzkoa	Ingeniería Sin Fronteras	Paz y Solidaridad
Ayuda Más	Innovación Social de la Cultura FISC Fundazioa	PROCLADE YANAPAY
Bakea eta Duintasuna	Intered Euskal Herria	PROSALUS
Bateginez	Intermón Oxfam	PROYDE PROEGA
Behar Bidasoa	Iquitanz	ROKPA Euskadi
Bultzapen	Iscoed Euskadi	Save the Children
Calcuta Ondoan	Itaka Escolapios Fundazioa	SED Solidaridad, Educación y Desarrollo
Cáritas Diocesana Bilbao	Izan Elkartea	SERSO Euskalherria
Cáritas Gipuzkoa	Justicia y Paz	SETEM Hego Haizea
Compartir	Kainabera	SODEPAZ Euskadi
Edex	Leonekin	SOLIVE Solidaridad Vedruna
Elan Euskadi	Manos Unidas	SOTERMUN
Emaús Fundazioa	Medicusmundi Araba	TAU Fundazioa
		UNESCO Etxea
		Zabalketa
		Zubiak Eginez

## Lankideak

Gure ekimenaren garapena aurrera ateratzeko ezinbestekoa den laguntzaren bultzatzaileak eskertzea gustatuko litzaiguke: lankideak eta boluntarioak diren pertsonak, GGKEak, giza mugimenduak, komunikabideak, erakunde publiko zein pribatuak.



### Euskadiko GGKEen Koordinakundeak

web korporatibo berri bat du 2008tik (www.ongdeuskadi.org), kide diren GGKEen eta Koordinakundearen informazioa eskaintzeko. Web orriko edukien diseinu eta egiturari esker, edonor sar daiteke gure web orriaren eta era berean edonork nabiga dezake.

Web orri honek hainbat atal ditu, non era askotako informazioa aurki baitaiteke. Hona hemen adibide batzuk: erakundeek eta Koordinakundeak antolatutako jardueren agenda, lankidetzarako deialdien argitalpena, erakundeetako lan-eskaintzak, intereseko artikulak eta boluntariora GGKEan, besteak beste.

2008an zehar, web orriaren atalak ia egunero eguneratu dira. Web orri berria apirilean ezarri zen eta hauek izan dira erabiltzaileen artean interes handiena piztu duten atalak: *interesgarria*, *ekitaldiak*, *lanak*, *deialdiak*, *ordezkaritzak* eta *dokumentazioa*, besteak beste.

Gainera, astean behin jardueren inguruko doako buletin elektronikoa bat bidaltzen da web orriaren bidez erregistratuta dauden 840 pertsonari. 2008an, 100 lagun baino gehiago erregistratu dira, eta Euskadiko GGKEen Koordinakundearen buletina jaso dute astero. Izen-ematea web orritik egiten da zuzenean.

Web orri berriaz gain, Koordinakundeak plataforma birtual berri bat du -estrane-2008tik, zeinaren bidez Koordinakundeko taldeen arteko lan koordinatua errazten den. Laburbilduz, web orria komunikaziorako tresna berri baliotsua da, eta ezarri baino lehen hainbat prestakuntza saio egin ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, estranetaren erabilera trebatzeko.



Sarrerak	Gastatutakoa (€)	%
Kuotak	25.810	7
Diru-laguntza publikoak*	350.793	92
Bestelako diru-sarrerak	3.123	1
<b>Guztira</b>	<b>379.726</b>	<b>100</b>

Gastuak	Gastatutakoa (€)	%
Bulegoko materialak	14.904	3
Langileak	306.612	67
Dietak eta garraioak	17.070	4
Kontratazioak	97.239	21
Funtzionamendua	23.510	5
<b>Guztira</b>	<b>459.337</b>	<b>100</b>

Diru-laguntza publikoak* (€)	
Eusko Jaurlaritzza	135.000
Bizkaiko Foru Aldundia	37.593
Bilboko Udala	35.000
Gipuzkoako Foru Aldundia	42.000
Donostiako Udala	35.200
Arabako Foru Aldundia- Gasteizko Udala	66.000
<b>Guztira</b>	<b>350.793</b>
<b>Emaitza</b>	<b>-79.611</b>

2008ko ekitaldiari dagokion zalantzazko hainbat diru-sarrera 2009 urteari egoztearen ondorioa da emaitza negatibo hau.